

# 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa



Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H



Hondarribiko  
Udala



# Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2023

---

## SARRERA

Oinarrizko izaera duen dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: "*administrazioko organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea*".

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honen helburua Hondarribiko Udalak dituen baliabideekin ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea da, horretarako, betiere, aurrekontuen egonkortasunerako mugak aintzat hartuta.

Horrenbestez, Udal honek ondoko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Bertan, plangintza tresna den heinean, datozen bi urtetan lortu nahi diren helburu estrategikoak azaldu dira, eta haietara iristeko udal sailek kudeatuko dituzten dirulaguntzen lerroak zehaztu ere.

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua

Hondarribiko Udalak 2020-2023 urteetan emango dituen dirulaguntzak arau eta dokumentu hauen arabera emango dira:

- 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra
- 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegia ezartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Hondarribiko Udalaren Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko Ordenantza Arautzailea
- 2020-2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau
- Dagozkion deialdia, lehia bidezko dirulaguntzen kasuan
- Dagozkion hitzarmenak, zuzeneko dirulaguntzen kasuan



Hondarribiko  
Udala

## 2. artikulua

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kredituak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta dirulaguntzak arautzeko oinarriak onartu.

## 3. artikulua

Dirulaguntzak egoteko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kredituak eta dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

## 4. artikulua

Dirulaguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

## II KAPITULUA. HELBURU ETA PRINTZIPIO OROKORRAK

### 5. artikulua

Udalak, deialdi publiko bidez edo zuzeneko dirulaguntza bidez, dirulaguntzak emango dizkie pertsoneri, elkarteei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

Plan honen **helburu estrategiko orokorrak** hauek dira:

- Bazterketa soziala ekiditzea
- Emakumea ahalduntzea
- Generoen arteko berdintasuna sustatzea
- Gazteen autonomia eta emantzipazioa bultzatzea
- Adinekoen gizarteratzea laguntzea
- Garapen bidean diren herrialdeetako biztanleen egoera ekonomikoa hobetzea
- Euskararen erabilera sustatzea
- Herriarren artean jarduera fisikoa eta bizitza aktiboa eta osasuntsua sustatzea
- Herriko jarduera artistiko eta kulturalak bultzatzea
- Herri ondarea eta tradizioa suspertzea

### 6. artikulua

Plan honen printzipio orokorrak honakoak dira:



## Hondarribiko Udala

- Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, dirulaguntza izendun edo zuzenaren kaltetan gerta gabe. Dirulaguntza izendunak eta zuzenak, aplikatu dakiokkeen arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kreditua izan behar du.
- Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera emango da dirulaguntza, onuradun izan daitezkeenek irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.
- Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzarakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko delarik.
- Dirulaguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla bermatu behar dute. Era berean, elkarte edo norbanakoek ere dirulaguntza jasotzeko, generoen arteko berdintasuna ezingo dute urratu.

### 7. artikulua

Alkatetzak, laguntzak edo dirulaguntzak emateko organo eskudunak, kudeaketa ekonomikoa egiteko funtzioa du, eta beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa gauzatzekoa.

Beraz:

- Dirulaguntza programak aurrekontu kreditu egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.
- Lehiaketa bidezko dirulaguntzak edo izendun dirulaguntzak eta zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik gastua onartu beharko da Hondarribiko Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.
- Eta azkenik, dirulaguntzak eman aurretik, dirulaguntzak arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

### 8. artikulua

Plan Estrategiko honek lau urteko iraupena izango du, zehazki, 2020-2023 epealdia, nahiz eta dirulaguntza lerro batzuk aurretik indarrean egotea gerta daitezkeen.

Urtero, dirulaguntza lerroak aldatu, beste batzuegatik ordezkatu edo kendu ahalko dira, jarraipen txostenek hala aholkatzen badute, eta, betiere, horretarako aurrekontua baldin badago.

Dirulaguntza lerro bakoitzaren barruan edozein atal eguneratu edo aldatu ahal izango da, izan jarraipen txostenen emaitzak direla-eta, izan era egokian arrazoitutako beste zioengatik.

Plan Estrategiko honetan jaso gabeko diru-laguntza lerro bat gehitu nahi izanez gero, Plana aldatu beharko da, aldeztu aurretik edo aldi berean. Ez da Plana aldatu beharko aldakuntza lerro bateko zenbatekoan gora-behera bada, beste zati guztiak bere horretan gelditzen diren heinean. Zenbatekoaren aldaketa hori espedientean jaso beharko da.



### III KAPITULUA. PLANAREN EDUKIA

#### 9. artikulua

Dirulaguntzak kudeatzeko ardura duten Udaleko sail guztiek parte hartu dute Plan honen prestakuntzan.

Plan honen helburu estrategikoak lortu aldera, 2020-2023 urtealdirako aurreikusitako laguntzek eta dirulaguntzek honako hauek jasotzen dituzte bakoitzari dagokion eranskinean:

a.- Helburu estrategikoak: Irizpide horrekin dirulaguntza zein helburutarako erabiliko den zehazten da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.

- Onuradunak
- Eraginak
- Gastuak eta finantzazioa: dirulaguntza bakoitzari aurreikusitako gastua eta finantzazioa
- Erregimena: dirulaguntza emateko aplikatu beharreko prozedura aurreikusten da.
- Egutegia: dirulaguntza emateko egin behar diren tramite nagusiak eta epeak.
- Bateragarritasuna: beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

b.- Jarraipena eta ebaluazioa

-Adierazleen bitartez: aurreko urteetako adierazleen emaitzekin alderatuz.

-Jarraipen txosten bitartez: ekitaldi bakoitzean dirulaguntza bakoitzaren azterketa egingo da: emaitzak, onuradun kopuruak, emakidak, epeak garaiz bete ote diren, tramitazioa egokia izan ote den...

### IV. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN GAIAK

#### 10. artikulua

Hondarribiko Udalak honako eskumen arloetan emango ditu diru-laguntzak:

- 1.- Kultura-Merkataritza
- 2.- Kirolak
- 3.- Gizarte Zerbitzuak
- 4.- Gazteria
- 5.- Hezkuntza
- 6.- Euskara
- 7.- Hirigintza-Ondarea
- 8.- Ingurumena



**1) KULTURA-MERKATARITZA.** Helburuak: Proiektuak burutzeko eta kultur zein jai ekitaldiak burutzeko laguntza ekonomikoa ematea, horien bitartez Udalaren jarduera eta irabazi asmorik gabeko elkarteekin lankidetzaz sustatuz. Udaleko ekipamendu mapa osatzea, kultura sustatzeko eta kultur zein jai ekitaldiak bultzatzeko. Herriko merkataritzari sostengua ematea.

-1.1. Kultur egitasmoetarako dirulaguntza lerroak:

- 1.1.1. Kultur eta jai egitasmoak burutzeko
- 1.1.2. Ikasturtean zehar musika irakaskuntzarako
- 1.1.3. Eliz-Musikaren zabalpenerako
- 1.1.4. Auzoetan asoziazionismoa sustatzeko
- 1.1.5. Auzoetako jai eta kultur egitasmoak sustatzeko
- 1.1.6. Herrian txistularitza tradizioa mantentzeko

-1.2. Merkataritza sustatzeko dirulaguntza lerroa:

- 1.2.1. Herriko merkatalgo txikia sustatzeko
- 1.2.2. Hondarribiko kontsumitzaileei zerbitzua emateko
- 1.2.3. Ostalaritza suspertzeko

**2) KIROLAK.** Herritarren bizitza aktiboa eta jarduera fisikoaren sustapena. Hondarribiko herritarren kirol beharrei erantzuna emateko gai den kirol sarea garatzeko, dirulaguntzak emango zaizkie ikastetxe, kirol talde, elkarte eta irabazi asmorik gabeko erakundeei. Laguntza hauek, bereziki, bertako kirolak sustatzea izango dute helburu. Hondarribian lanean diharduten irabazi asmorik gabeko kirol talde eta elkartei diru-laguntzak konkurrentzia lehiakorrean.

- 2.1 Hondarribiko kirol talde eta elkarten egitura garapenerako
- 2.2 Izaera bereziko kirol jarduerak sustatzeko
- 2.3. Eskola-kirola kudeatzeko egiturak sortu eta garatzeko ikastetxeei zuzendurikoa

**3) GIZARTE ZERBITZUAK** Gizarte Zerbitzuen arloko egitasmo eta jarduerak finantzatzeko dirulaguntza lerroak: Onuradun dira Hondarribian eta Hondarribiko eskualdean jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde guztiak. Lurraldeko elkarteek ere eskatzeko aukera izango dute, beraien jarduerak tokiko izaera gainditzen badute edo/eta Hondarribiko herritarrek artatzen badituzte. Helburuak honakoak izango dira: partehartzea sustatzea, gizarte-boluntarioritza sustatzea, herritarren arteko elkartasuna, integrazio eta gizarteratze arrazoak dituztenei arreta, eta nagusiei arreta.

Lankidetzaz arloan: Gipuzkoan ordezkariak duten Gobernu Kanpoko Erakundeei dirulaguntzak, garapen bidean diren herrialdeetako herritarren baldintza sozio-ekonomikoak garatzeko eta hobetzeko ekintzak egiteko. Garapen bidean diren herrialdeetan gizarte-larrialdietarako laguntzak. Lehenetsuna dute Hondarribian edo eskualdean egoitza duten GKEek.

- 3.1. Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten erakundeei
- 3.2. Garapen bidean diren herrialdeetan lankidetzaz programak finantzatzeko GKEei
- 3.3. Herritarren arteko elkartasuna sustatzeko
- 3.4. Pertsonen gizarte-baztertzeari ekiditzeko



- 3.5. Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduera fisiko eta kiroltakoak garatzeko
- 3.6. Emakumeen autonomia eta ahalduntzea eskuratzen laguntzako
- 3.7. Nagusien gizarte parte-hartzea sustatzeko
- 3.8. Pertsonen autonomia eta ahalduntzea eskuratzen laguntzako gizarte esku-hartzeari zuzendurikoa
- 3.9. Errefuxiatuei laguntzako
- 3.10. Arrantzale eta saregileen lana eta ekarpena nabarmentzeko
- 3.11. Diru-baliabiderik ez duten familiei sostengua emateko
- 3.12. "Emakumea eta Itsasoa" ikerketa beka
- 3.13. Energia-pobrezia egoerak sahiesteko laguntzak
- 3.14. Garapenerako lankidetzan gazteen parte-hartze zuzena sustatzeko bekak
- 3.15. Beharra duten pertsonen dirulaguntza
- 3.16. Saharaui herriarekin elkarteasuna (Oporrak Bakean)

**4) GAZTERIA.** Hondarribian gazteei zuzenduriko programak eta egitasmoak sustatu eta laguntzea, gazteentzako jarduera eskaintza suspertzeko. Hondarribiko gazteen elkarteek edo aisialdi taldeek egiten dituzten urteroko programak eta aldizkako ekitaldiak garatzeko eta burutzeko laguntzak. Gazteentzako ekintzak egiten dituzte Hondarribiko irabazi asmorik gabeko erakunde juridiko pribatuek eskatu ahalko dituzte diru-laguntzak.

- 4.1. Hondarribiko gazte elkarteek eta aisialdi taldeek burututako programa eta jarduerentzako
- 4.2. Gazteen artean musika kultura sustatzeko

**5) HEZKUNTZA.** Haur Hezkuntzari sostengua. Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa mantentzeko udal laguntzak, familiek egin beharreko diru-ekarpena arintzeko. Dirulaguntza hau zerbitzuak defizita sortzen duenean soilik deituko da.

- 5.1. Haur Hezkuntzari sostengua emateko

**6) EUSKARA.** Euskara sustatzeko dirulaguntzak. Hizkuntza ofizialen eremu funtzional ezberdinetan, hizkuntzen erabilerarako berdintasun aukerak sustatzea.

- 6.1. Euskara sustatzeko jarduerak egiten dituzten elkarte eta taldeei
- 6.2. Eskola adinean euskararen erabilera suspertzeko ekimenei sostengua
- 6.3. Euskararen erabilera suspertzeko ekimenei sostengua.

**7) HIRIGINTZA-ONDAREA.** Hondarribiarrei laguntzea euren etxebizitzak mantentzen eta hobetzen. Hondarribia herritarrentzat bizitoki izan dadin lagundu, turismoaren merkatutik kanpoko etxebizitzak alokairu merkatua suspertuz eta sustatuz. Herriko ondare historikoa ikertu, berreskuratu, gorde eta zabaltzea.

- 7.1. Eraikuntzen mantenua ekonomikoki sostengatzeko
- 7.2. Etxebizitzak alokairuak sustatzeko
- 7.3. Ondare historikoaren ikerketa eta hedapenerako



Hondarribiko  
Udala

## 8) INGURUMENA.

-8.1. Hondarribiko katu koloniak era etikoan kontrolatzeko

### V. KAPITULUA. DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA. EMAITZEN AZTERKETA

#### 11. artikulua

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, dirulaguntzak ematen dituzten departamentuek txostena eskatuko diete dirulaguntzak jasotzen dituztenei. Txostenean egindako ekintza kopurua eta dirulaguntzak zenbat herritarrengan izan duen eragina adierazi beharko dira batetik, eta, bestetik, lortutako helburuak justifikatu egin beharko dira.

Zehazki, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

- Helburua
- Dirulaguntza jasotzen duen erakundea, eta, hala bada, laguntzailea
- Dirulaguntzaren zenbatekoa
- Dirulaguntzarekin egindako ekintza zehatzak
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina
- Dirulaguntza ematen duen departamentuaren balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzeko edo kentzekoaren bidez kotitasunari buruz.

### VI. KAPITULUA. PLANAREN JARRAIPEN ETA KONTROLA

#### 12. artikulua

Plan Estrategikoaren kontrola eta jarraipena bi eratan egingo da urtero:

- **Kontrol ekonomiko-finantzakoa:** Udaleko Kontu-Hartze orokorrak egingo du, indarrean dagoen araudiak jasotzen dituen baldintzetan eta Kontu-Hartzeak zehazten dituen prozedurekin.
- **Planaren jarraipen eta kontrola:** Jarraipen hau Planaren jarraipenaren ardura duen udal sailak egingo du. Horretarako, hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan sail bakoitzak txosten arrazoitua egingo du, honako zehaztasunak azalduz:
  - Lerro bakoitzari buruzko informazioa, bertan zehaztuz emandako diru-laguntzak, justifikatutakoak, uko egindakoak eta itzultitakoak (edo itzultzeko prozesuan daudenak).
  - Berriazko helburuak ze mailan lortu diren, eta lorpen-epea. Horretarako, lerro bakoitzean helburuen lorpen adierazleak zehaztuko dira.
  - Benetako kostuak, kontuan hartuta aurreikusitako kostuak, tramitazioa eta adierazle zenbagarriak. Diruz-lagundutako egitasmoak izan duen eragina eta ondorioak.
  - Planaren ezarpenaren aurrekontu eta finantza ondorioak.
  - Balioespen orokorra



Hondarribiko  
Udala

- Hurrengo Plan Estrategikorako iradokizunak.

## VII. KAPITULUA. EBALUAZIOA ETA GARDENTASUNA

### 13. artikulua

Planaren jarraipenen ardura duen udal zerbitzuak ekitaldi bakoitzeko emaitzaren balioespena egingo du, eta balioespen hori kontuan hartuta, hurrengo planak hobetu eta finduko dira.

- Plan hau berraztertu egingo da:
  - Indarra galdu duten edo helburuak lortzeko eraginkorrak ez diren lerroak aldatu eta eguneratzeko.
  - Mantzentzen diren lerroen zenbatekoa eguneratzeko.
  - Aldez aurretik ezarritako helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren lerro berriak gehitzeko.

### 14. artikulua

Udalaren webgunean argitaratuko dira emandako dirulaguntza guztiak. Bertan zehaztuko da erakunde onuraduna, dirulaguntzaren zenbatekoa eta lagundutako egitasmo eta ekintza.

**DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2020-2023**  
**PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES**

Lerroa	Helburua	Onuradunak	Kudeaketa	Zenbatekoa	Partida
Línea	Objetivo	Beneficiarios	Gestión	Importe	
1	KULTURA-COMERCIO-TURISMO			GUZTIRA: 301.000€	
1.1.1.	Kultur eta jai egitasmoak burutzeko/ <i>Realización de proyectos y actividades culturales y festivas</i>	Herriko kultur elkarteak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	42.000€	0206.481.01.334.00
1.1.2.	Ikasturtean zehar musika irakaskuntzarako/ <i>Enseñanza musical durante el curso</i>	Hondarribiko Musika Eskola	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	112.500€	0206.481.02.334.00
1.1.3.	Eliz-Musikaren zabalpenerako/ <i>Difusión de la música sacra</i>	Eskifaia Abesbatza	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	10.000€	0206.481.03.334.00
1.1.4.	Auzoetan asoziazionismoa sustatzeko/ <i>Fomento del asociacionismo vecinal</i>	Mendelu-com	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	6.000€	0206.481.04.334.00
		Amute-Kosta	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	6.000€	0206.481.05.334.00
1.1.5.	Auzoetako jai eta kultur egitasmoak sustatzeko/ <i>Promover las fiestas e iniciativas culturales de los diferentes barrios</i>	Mendelu.com	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	3.000€	0206.481.02.338.00
		Madalenako Jai Batzordea	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	3.000€	0206.481.03.338.00
		Amute Kosta	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	3.000€	0206.481.04.338.00
		Jaizubia	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	3.000€	0206.481.05.338.00
1.1.6.	Hondrribian txistu zapeltasuna suspertzeko/ <i>Fomento de la afición por el txistu</i>	Hondarribiko Txistu Taldea	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	14.000€	0206.481.06.334.00
1.2.1.	Herriko merkatalgo txikia sustatzeko/ <i>Fomento del pequeño comercio local</i>	Herriko merkatariak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	60.000 €	0111.480.01.433.20
1.2.2.	Hondarribiko kontsumitzaileei zerbitzua emateko/ <i>Asesoramiento a los consumidores hondarribiaras</i>	Acubi	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	5.300 €	0111.481.02.431.00

1.2.3.	Ostalaritza suspertzeko/ <i>Dinamización de la hostelería</i>	Ostalaritza Elkartea	Izenduna/Nominativa	16.600€	0111.481.01.431.00
		Kaiteam Elkartea	Izenduna/Nominativa	16.600€	0111.481.03.431.00
2	KIROLAK			GUZTIRA: 360.000	
2.1	Hondarribiko kirol talde eta elkarten egitura garapenerako / <i>Desarrollo estructural de los clubes y asociaciones deportivas de Hondarribia</i>	Herriko kirol talde eta elkarteak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	105.500€	0205.481.01.341.00
		Hondarribiko Arraun Elkartea	Izenduna/Nominativa	150.000€	0205.481.02.341.00
		Judo Ama Guadalupekoa	Izenduna/Nominativa	20.000€	0205.481.03.341.00
		Hondarribiko Itsaskari Baita Kluba	Izenduna/Nominativa	30.000€	0205.481.11.341.00
2.2	Izaera bereziko kirol jarduerak sustatzeko/ <i>Organización de actividades deportivas de carácter especial</i>	Herriko kirol talde eta elkarteak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	14.500€	0205.481.02.341.00
2.3.	Eskola-kirola kudeatzeko egiturak sortu eta garatzeko ikastetxei/ <i>A centros escolares para la creación y desarrollo de estructuras específicas de gestión y atención al deporte escolar</i>	Herriko ikastetxeak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	40.000€	0205.481.02.341.00
3	GIZARTE ZERBITZUAK			364.153€	
3.1.	Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten erakundeei/ <i>A entidades que desarrollan su actividad en el sistema de servicios sociales.</i>	Gizarte zerbitzuen arloko elkarteak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	15.000 €	0208.481.01.230.00
3.2.	Garapen bidean diren herrialdeetan lankidetzak programak finantzatzeko GKEei/A ONGs para financiar programas de cooperación con países en desarrollo.	GKEak/ONGs	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	107.543€	0208.481.01.230.00
		Euskal Fondoak	Izenduna/Nominativa	15.060€	0208.481.02.230.00
		Larrialdiak/Emergencias	Zuzena/Directa	6.000€	0208.481.01.230.00
3.3.	Herritarren arteko elkartasuna sustatzeko/ <i>Fomento de la solidaridad entre la ciudadanía</i>	<i>Odol Emaileen Elkartea/Donantes de Sangre</i>	Izenduna/Nominativa	1.000€	0208.481.03.230.00

3.4.	Pertsonen gizarte-bazterte arriskua ekiditzeko/ <i>Evitar el riesgo de exclusión social</i>	<i>Hondarribiko Cáritas</i>	<i>Izenduna/Nominativa</i>	16.000€	0208.481.04.230.00
3.5.	Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduera fisiko eta kirolekoak garatzeko / <i>Desarrollar actividades físico-deportivas para personas con discapacidad</i>	<i>Minusbaliatuentzako Kirol Federakundea/ Federación de Deporte Adaptado</i>	<i>Izenduna/Nominativa</i>	4.000€	0208.481.06.230.00
3.6.	Emakumeen autonomia eta ahalduak sustatzeko/ <i>Fomento de la autonomía y empoderamiento de las mujeres</i>	<i>Emeki Elkartea</i>	<i>Izenduna/Nominativa</i>	7.000€	0208.481.07.230.00
3.7.	Nagusien gizarte parte-hartzea sustatzeko/ <i>Fomento de la participación social de las personas mayores</i>	<i>Nagusilan</i>	<i>Izenduna/Nominativa</i>	2.500€	0208.481.08.230.00
3.8.	Pertsonen autonomia eta ahalduak eskuratzeko laguntzeko gizarte esku-hartzeari zuzendurikoak/ <i>Para la intervención social para paliar la exclusión social y ayudar a conseguir el empoderamiento de las personas</i>	<i>Gurutze Gorria/Cruz Roja</i>	<i>Izenduna/Nominativa</i>	10.000€	0208.481.09.230.00
3.9.	Errefuxiatuei zuzendurikoak/ <i>Destinadas a la ayuda a refugiados</i>	<i>Katsikas</i>	<i>Izenduna/Nominativa</i>	6.000€	0208.481.10.230.00
3.10.	Marinelen lana eta ekarpena aintzat hartzea sustatzeko/ <i>Para la puesta en valor del papel de los marinos y trabajadores del mar</i>	<i>Asociación Vejez del Marino</i>	<i>Izenduna/Nominativa</i>	650€	0208.481.05.230.00
3.11.	Diru-baliabiderik ez duten familiei sostengua emateko / <i>Para el apoyo a familias que carecen de recursos económicos</i>	<i>Hondarribiko familiak</i>	<i>Zuzena/Directa</i>	100.000€	0208.480.01.231.00
3.12.	“Emakumea eta Itsasoa” ikerketa beka/ <i>Beca de</i>	<i>Ikertzaileak</i>	<i>Konkurrentzia lehiakorra/</i>	7.000€	0208.480.01.231.50

	<i>investigación "La mujer y el mar"</i>		<i>Concurrencia competitiva</i>		
3.13.	Energia-pobrezia egoerak sahiesteko laguntzak/ <i>Ayudas para prevenir las situaciones energéticas</i>	Hondarribiko herritarrak	Zuzena/ <i>Directa</i>	50.000€	0208.480.03.231.00
3.14.	Garapenerako lankidetzan gazteen parte-hartze zuzena sustatzeko bekak/ <i>Becas para promocionar la participación directa de la juventud en la cooperación al desarrollo</i>	Hondarribiko gazte kooperanteak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	3.000€	0208.480.01.230.00
3.15	Beharra duten pertsonen dirulaguntza/ <i>Subv. Personal Establecimiento</i>	Beharra duten herritarrak	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	9.200€	0208.481.01.231.00
3.16	Saharai herriarekin elkartasuna	Oporrak Bakean elkartea	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	4.200€	0208.481.11.230.00
4	GAZTERIA			19.250€	
4.1.	Hondarribiko gazte elkarteek eta aisialdi taldeek burututako programa eta jarduerentzako/ <i>Apoyo a programas y acciones realizadas por asociaciones juveniles y grupos de tiempo libre de Hondarribia</i>	Hondarribiko gazte elkarteak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	5.000€	0206.481.01.337.20
4.2.	Gazteen artean musika kultura sustatzeko/ <i>Para promocionar la cultura musical entre la juventud</i>	<i>Psilocybe Musika Elkartea</i>	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	14.250€	0206.481.02.337.20
5	HEZKUNTZA			10.000€	
5.1.	Haur Hezkuntzari sostengua emateko/ <i>Para el apoyo a la educación regulada infantil</i>	Hondarribiko ikastetxeak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	10.000€	0206.481.01.320.00
6	EUSKARA			84.789,96€	
6.1	Euskara sustatzeko jarduerak egiten dituzten elkarte eta taldeei/ <i>A asociaciones o grupos que organizan actividades para la promoción del euskera</i>	Hondarribiko eskolak, guraso elkarteak, euskara taldeak, enpresak, euskara ikasleak	Konkurrentzia lehiakorra/ <i>Concurrencia competitiva</i>	27.600€	0204.481.01.335.10
		Euskaltegiko ikasleentzako	Konkurrentzia lehiakorra	10.000€	0204.480.01.335.20

		dirulaguntzak	aparte?		
		Blagan Elkartea	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	9.000€	0204.481.07.335.10
		<i>Topagunea</i>	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	21.037€	0204.481.08.335.10
6.2.	Eskola adinean euskararen erabilera suspertzeko ekimenei/ <i>Apoyo a iniciativas que favorezcan el uso del euskera en los centros escolares</i>	<i>Talaia Eskola</i>	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	7.010,71€	0204.481.04.335.10
		<i>Ama Guadalupekoa Ikastetxea</i>	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	4.630,69€	0204.481.05.335.10
		Egiluze Ikastetxea	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	3.511,56€	0204.481.06.335.10
6.3.	Euskararen erabilera suspertzeko ekimenei sostengua/ <i>Apoyo a festivales a favor del euskera</i>	Nafarroa Oinez	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	1.000€	0204.481.03.335.10
		Herri Urrats	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	1.000€	0204.481.02.335.10
7	HIRIGINTZA-ONDAREA			130.000€	
7.1.	Eraikuntzen mantenua ekonomikoki sostengatzeko / <i>Para el apoyo económico al mantenimiento de edificios</i>	Udalerriko bizilagunak	Lehia bidezkoa/ Concurrencia competitiva	60.000€	0109.480.01.152.20
7.2.	Etxebizitzaren alokairua sustatzeko/ <i>Para la promoción del alquiler de viviendas habituales</i>	Bizigune programan sartutako etxeen jabeak/ <i>Propietarios con contrato con el programa Bizigune</i>	Lehia bidezkoa/ Concurrencia	60.000€	0109.480.01.152.30
7.3.	Ondare historikoaren hedapenerako / <i>Para la difusión del patrimonio histórico</i>	<i>Aranzadi Zientzia Elkartea</i>	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	10.000€	0106.471.02.336.00
8	INGURUNEA			5.500€	
8.1	Hondarribiko katuen populazioa era egokian kudeatzeko/ <i>Para control de gatos en Hondarribia</i>	<i>“Asociación para el control y protección de colonias felinas Hondarribiko Katuak”</i>	Izenduna/ <i>Nominativa</i>	5.500€	0110.481.02.172.00
<b>GUZTIRA</b>				<b>1.274.692,96€</b>	

## 1. Kultura – Merkataritza

### 1.1.1. Kultur eta jai egitasmoak burutzeko dirulaguntza lerroa

**a.- Helburu estrategikoak:** Herriko kultur egitasmoak ahalbideratzea eta sustatzea sostengu ekonomikoaren bitartez.

<b>Onuradunak</b>	Pertsona fisikoak eta irabazi asmorik gabeko elkarteak, Hondarribikoak eta Hondarribikoak ez direnak, hain jarduera herrian egiten bada edo herriarentzako interesduna bada.
<b>Eragina</b>	Urtean zehar Hondarribiko persona fisikoek eta irabazi asmorik gabeko elkarteek egiten dituzten urteroko programa edo noizean behineko ekintzek sorturiko defizit ekonomikoa arintzen laguntzea.
<b>Gastuak</b>	42.000€
<b>Finantzazioa</b>	0206.481.01.334.00
<b>Erregimena</b>	Konkurrentzia lehiakorra. <i>Dirulaguntza konkurrentea izanik, bideratuko den deialdiak 38/2003 legearen 17. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Deialdia urteko lehen lauhilekoan. -Eskabideak eskatzeko epea: deialdia argitaratu ondoko egunetik aurrera hilabete. -Ebazpena: 2 hilabete eskabideen aurkezpen-epea amaitu ostean -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. -Justifikazioa: hurrengo ekitaldiko otsailaren 28a baino lehen. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai.  Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

### b.- Jarraipena eta ebaluazioa

-Helburuen betetze-maila adierazle bidez aztertuko da:

- Numerikoa: Eskaera egin duten elkarten kopurua 12 (2018), 13 (2019)
- Numerikoa: Dirulaguntza jaso duten elkarten kopurua: 9 (2018), 10 (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



**1.1.2. Ikasturtean zehar musika irakaskuntzarako dirulaguntza lerroa**

**a.- Helburu estrategikoak.** Hondarribiarren artean musika kultura eta musika ikasketak sustatzea.

<b>Onuradunak</b>	Hondarribiko Musika eta Dantza Eskola/Escuela de Música y Danza de Hondarribia
<b>Eragina</b>	Hondarribiarrei musika ikasketa doituak herrian bertan egiteko aukera eskaintzea. Hondarribiko Musika eta Dantza Eskolaren jardunari sostengu ekonomikoa eskaintzea.
<b>Gastuak</b>	112.500€
<b>Finantzazioa</b>	0206.481.01.334.00
<b>Erregimena</b>	Izenduna. Zuzeneko dirulaguntza izanik, bideratuko den hitzarmenak 38/2003 legearen 28. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.
<b>Egutegia</b>	-Elkartearen eskaerarekin hasten da. -Ebazpenarekin batera hitzarmena sinatuko da. Hitzarmenak honakoak jasoko ditu: dirulaguntzaren helburua, onuraduna, aurrekontu kreditua, dirulaguntzaren guztizkoa eta zuriketa egiteko epea. -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. -Justifikazioa: ikasturtea amaitu eta bi hilabete igaro baino lehen. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai.  Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

**b.- Jarraipena eta ebaluazioa**

-Adierazleak:

- Numerikoa: ikasle kopurua 400 (2018), 405 (2019)
- Numerikoa: ikastaro kopurua 14 (2018), 15 (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



### 1.1.3. Eliz-Musikaren zabalpenerako dirulaguntza lerroa

**a.- Helburu estrategikoak.** Hondarribiarren artean musika kultura sustatzea, estilo desberdinetako jarduera eta programazio eskaintza ahalbideratuz.

<b>Onuradunak</b>	Eskifaia Abesbatza
<b>Eragina</b>	Elkarteak antolatzen duen jarduera honi laguntzea. Gipuzkoan eliz-musikaren munduan jarduera aintzindaria da, eta bertako zein atzerriko abesbatzek parte hartzen dute. 2020koa 38. edizioa izango da.
<b>Gastuak</b>	10.000€
<b>Finantzazioa</b>	0206.481.02.332.00
<b>Erregimena</b>	Izenduna. <i>Zuzeneko diru-laguntza izanik, bideratuko den hitzarmenak 38/2003 legearen 28. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Elkartearen eskaerarekin hasten da. Urteko lehen hiruhilekoan. -Ebazpenarekin batera hitzarmena sinatuko da. Hitzarmenak honakoak jasoko ditu: dirulaguntzaren helburua, onuraduna, aurrekontu kreditua, dirulaguntzaren guztizkoa eta zuriketa egiteko epea. -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. -Jaialdia Aste Santuan egiten da. -Justifikazioa: jarduera amaitu eta bi hilabete igaro baino lehen. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai.  Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

### b.- Jarraipena eta ebaluazioa

-Adierazleak:

- Numerikoa: ekitaldi (kontzertu) kopurua: 4 (2018), 5 (2019)
- Numerikoa: talde partehartzaile kopurua: 5 (2018), 5 (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



#### 1.1.4. Auzoetan asoziazionismoa sustatzeko dirulaguntza lerroa

**a.- Helburu estrategikoak.** Herritarren artean asoziazionismoa sustatzea, herritarrek euren elkarteetatik antolatutako jarduerak sustatuz. Herriko auzo elkarten lana erraztea, udal baliabide material eta ekonomikoen bidez.

<b>Onuradunak</b>	Herriko auzo elkarteak; Mendelu.com eta Amute-Kosta Elkarte
<b>Eragina</b>	Herriko auzo elkarteei sostengua ematea euren gizarte eta kultur-dinamizazio lanean eta horretarako udal baliabide material eta ekonomikoak eskaintzea.
<b>Gastuak</b>	12.000€
<b>Finantzazioa:</b>	0206.481.04.334.00 (Mendelu.com) 0206.481.05.334.00 (Amute-Kosta)
<b>Erregimena</b>	Izenduna. <i>Zuzeneko dirulaguntza izanik, bideratuko den hitzarmenak 38/2003 legearen 28. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Elkartearen eskaerarekin hasten da. Urteko lehen hiruhilekoan. -Ebazpenarekin batera hitzarmena sinatuko da. Hitzarmenak honakoak jasoko ditu: dirulaguntzaren helburua, onuraduna, aurrekontu kreditua, dirulaguntzaren guztizkoa eta zuriketa egiteko epea. -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. -Justifikazioa: otsailaren 28a. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai.  Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

#### b.- Jarraipena eta ebaluazioa

-Adierazle bitartez.

- Numerikoa: lagundutako elkarte kopurua: 2 (2018), 2 (2019).

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



1.1.5. Auzoetan jaiak eta kultur ekimenak sustatzeko dirulaguntza lerroa

a.- Helburu estrategikoak. Jai ekitaldiei laguntza ekonomikoa ematea.

<b>Onuradunak</b>	Hondarribiko auzo elkarteak: Madalen Auzoko Jai Batzordea Elkartea, Amute-Kosta Auzo Elkartea, Jaitzubia Elkartea, Mendelu.com
<b>Eragina</b>	Herritarrei eta auzo-elkarteei auzoetako jaietako egitaraua eta jarduerak antolatzeko sostegua eta laguntza ekonomikoa ematea.
<b>Gastuak</b>	12.000€
<b>Finantzazioa:</b>	0206.481.02.338.00 Mendelu.com; 0206.481.03.338.00 (Madalena); 0206.481.04.338.00 (Amute-Kosta); 0206.481.05.338.00 (Jaitzubia)
<b>Erregimena</b>	Izenduna. <i>Zuzeneko dirulaguntza izanik, bideratuko den ebazpenak edo hitzarmenak 38/2003 legearen 28. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Elkartearen eskaerarekin hasten da. -Ebazpena bakarrik, 3.000koak direlako. Ebazpenak jasoko ditu: dirulaguntzaren helburua, onuraduna, aurrekontu kreditua, dirulaguntzaren guztizkoa eta zuriketa egiteko epea. -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. -Justifikazioa: jarduera egin eta bi hilabete igaro baino lehen. Festak direnez, udan egiten dira gehienak. Urritik-abendura. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai.  Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

b.- Jarraipena eta ebaluazioa

- Adierazleak:

- Numerikoa: eginiko jai-egitarau kopurua: 4 (2018), 4 (2019).
- Numerikoa: orotara eginiko ekitaldiak: 12 (2018), 14 (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



**1.1.6. Herrian txistularitza tradizioa mantentzeko dirulaguntza lerroa**

**a.- Helburu estrategikoak.** Hondarribian txistularitza tradizioa mantentzea eta zaletasuna suspertzea.

<b>Onuradunak</b>	Hondarribiko Txistu Taldea
<b>Eragina</b>	Hondarribiko Txistulari Alardearen tradizioa mantentzea eta herrian zaletasun hau mantentzen laguntzea. Txistulari Alardea egitea.
<b>Gastuak</b>	14.000€
<b>Finantzazioa:</b>	0206.481.06.334.00
<b>Erregimena</b>	Izenduna. <i>Zuzeneko dirulaguntza izanik, bideratuko den ebazpenak edo hitzarmenak 38/2003 legearen 28. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Elkartearen eskaerarekin hasten da. -Ebazpena eta hitzarmena. Hitzarmenak jasoko ditu: dirulaguntzaren helburua, onuraduna, aurrekontu kreditua, dirulaguntzaren guztizkoa eta zuriketa egiteko epea. -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. -Justifikazioa: jarduera egin eta bi hilabete igaro baino lehen. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai.  Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

**b.- Jarraipena eta ebaluazioa**

- Adierazleak:

- Numerikoa: orotara eginiko ekitaldiak: X (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



-1.2. Merkataritza sustatzeko diru-laguntza lerroa:

**1.2.1. Herriko merkatalgo txikia sustatzeko dirulaguntza lerroa**

**a.- Helburu estrategikoak.** Merkataritza arloan jarduera ekintzaileei sostengua ematea eta dinamizazioan laguntzea.

<b>Onuradunak</b>	Ekintzaileak, enpresak, saltoki txikiak.
<b>Eraginak</b>	Herriko merkatalgo txikia sustatzea (bereziki alde zaharrean). Bi lerro: -Enpresen eraketa eta abiatzea lagundu. -Martxan diren enpresen modernizazioa lagundu.
<b>Gastuak</b>	60.000€
<b>Finantzazioa</b>	0111.480.01.433.20
<b>Erregimena</b>	Konkurrentzia lehiakorra. <i>Dirulaguntza konkurrentea izanik, bideratuko den deialdiak 38/2003 legearen 17. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Deialdia Urtarrila-apirila. Aurreko ekitaldiko gastuak laguntzen dira. -Eskabideak aurkezteko X hilabete. -Ordainketa 100% ebazpenarekin, justifikazioa eskariarekin aurkezten delako.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai. Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

**b.- Jarraipena eta ebaluazioa**

-Adierazle bitartez. 2019an sortutako lerroa da.

- Numerikoa: zenbat laguntza lerro bakoitzean: 2019, X/X
- Numerikoa: laguntzarik jaso ez duten eskaerak: 2019, X/X

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



**1.2.2. Hondarribiko kontsumitzaileei zerbitzua emateko dirulaguntza lerroa**

**a.- Helburu estrategikoak.** Merkataritza eta ostalaritza arloen lehiakortasunari lagundu.

<b>Onuradunak</b>	ACUBI (Bidasoako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarte)
<b>Eragina</b>	Elkarte honek Hondarribian egiten dituen jarduerak lagundu: kontsumo arloko galdeketak, erreklamazioak eta bitartekaritza lana kontsumitzaile eta erabiltzaileek enpresa zein profesionalekin izan ditzaketen gatazketan.
<b>Gastua</b>	5.300€
<b>Finantzazioa:</b>	0111.481.02.431.00
<b>Erregimena</b>	Izenduna. <i>Zuzeneko diru-laguntza izanik, bideratuko den hitzarmenak 38/2003 legearen 28. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Elkartearen eskaerarekin hasten da. Ahal dela ekaina baino lehen. -Ebazpena eta hitzarmena. Hitzarmenak jasoko ditu: dirulaguntzaren helburua, onuraduna, aurrekontu kreditua, dirulaguntzaren guztizkoa eta zuriketa egiteko epea. -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. -Justifikazioa. Hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai. Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

**b.- Jarraipena eta ebaluazioa**

-Adierazle bitartez.

- Numerikoa: artatutako kontsulta kopurua: 305 (2018), 315 (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



### 1.2.3. Ostalaritza suspertzeko dirulaguntza lerroa

**a.- Helburu estrategikoak.** Herriko ostalarien arteko asoziazionismoa sustatu. Ostalaritza arloen lehiakortasunari lagundu.

<b>Onuradunak</b>	Bi elkarte: Hondarribiko Ostalaritza Elkarte / Kaiteam Elkarte
<b>Eraginak</b>	Elkartearen jarduerari sostengua eman, bere helburu nagusiak sustatuz: bazkideen ideiak abiapuntu hartuta, ekimen turistiko, ekonomiko eta promoziozkoak egitea / Kirol portuan ostalarien jarduera sustatzeko jarduerak lagundu.
<b>Gastuak</b> <b>Finantzazioa</b>	16.600 (0111.481.01.431.00) / 16.600 (0111.481.03.431.00)
<b>Erregimena</b>	Izendunak. <i>Zuzeneko dirulaguntza izanik, bideratuko den hitzarmenak 38/2003 legearen 28. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Elkarte bakoitzaren eskaerarekin hasten da. Ahal dela ekaina baino lehen. -Ebazpena eta hitzarmena. Hitzarmenak jasoko ditu: dirulaguntzaren helburua, onuraduna, aurrekontu kreditua, dirulaguntzaren guztizkoa eta zuriketa egiteko epea. -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. -Justifikazioa. Hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai. Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

### b.- Jarraipena eta ebaluazioa

-Adierazle bitartez.

- Numerikoa: elkarte bakoitzak burutu dituen jarduera kopurua (2018), (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



## 2. Kirolak

### 2.1 Hondarribiko kirol talde eta elkarten egitura garapenerako ohiko dirulaguntza lerroa

**a.- Helburu estrategikoak.** Herritarren bizitza aktiboa eta jarduera fisikoaren sustapena. Kirol jarduera ahalbideratu eta sustatzea, eta baita hainbat ekintza eta programen antolakuntza.

<b>Onuradunak</b>	Hondarribian diharduten kirol talde, erakunde, elkarte eta ikastetxeak.
<b>Eraginak</b>	Hondarribiarren kirol eskari guztiei erantzuna emango dion herriko kirol sistema garatzen laguntzea.
<b>Gastuak</b>	105.500€
<b>Finantzazioa</b>	0205.481.01.341.00
<b>Mekanismoak</b>	Konkurrentzia lehiakorra. <i>Dirulaguntza konkurrentea izanik, bideratuko den deialdiak 38/2003 legearen 17. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Deialdia ekaina baino lehen egingo da. -Eskabideen aurkezpena deialdia egin eta 20 egun naturalen epean. -Ebazpena bi hilabete baino lehenago. -Lehen ordainketa ebazpenarekin batera: %60. -Justifikazioa noiz? -2. ordainketa justifikazioa onartu ondoren: %40.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai. Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

### b.- Jarraipena eta ebaluazioa

-Adierazleen bitartez.

- Numerikoak: erakunde eskatzaileek dituzten ohiko lizentzia kopurua (2018), (2019)
- Portzentaia: erakundeen tituludun teknikarien portzentaia (2018), (2019)
- Portzentaia: lizentzia dutenen artean emakumeen portzentaia (2018), (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



**Lerro berdinarean barruan hiru dirulaguntza izendun daude:**

**a.- Helburu estrategikoak.** Herritarren bizitza aktiboa eta jarduera fisikoaren sustapena. Kirol jarduera ahalbideratu eta sustatzea, eta baita hainbat ekintza eta programen antolakuntza.

<b>Onuradunak</b>	Hondarribiko Arraun Elkartea Judo Ama Guadalupekoa elkartea Hondarribiko Itsaskari Baita elkartea
<b>Eraginak</b>	Hondarribiarren kirol eskari guztiei erantzuna emango dion herriko kirol sistema garatzen laguntzea.
<b>Gastuak</b> <b>Finantzazioa</b>	150.000€ (0205.481.02.341.00) 20.000€ (0205.481.03.341.00) 30.000€ (0205.481.11.341.00)
<b>Erregimena</b>	Izendunak. <i>Zuzeneko diru-laguntza izanik, bideratuko den hitzarmenak 38/2003 legearen 28. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Elkarte bakoitzaren eskaerarekin hasten da. Ahal dela ekaina baino lehen. -Ebazpena eta hitzarmena. Hitzarmenak jasoko ditu: dirulaguntzaren helburua, onuraduna, aurrekontu kreditua, dirulaguntzaren guztizkoa eta zuriketa egiteko epea. -1go ordainketa: %60, ebazpenarekin. (Arraun elkartek %90) -Justifikazioa. Hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen. -2. ordainketa: %40, justifikazioa onartzean.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai. Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

**b.- Jarraipena eta ebaluazioa**

-Adierazleen bitartez.

- Numerikoak: erakunde eskatzaileek dituzten ohiko lizentzia kopurua (2018), (2019)
- Portzentaia: erakundeen tituludun teknikarien portzentaia (2018), (2019)
- Portzentaia: lizentzia dutenen artean emakumeen portzentaia (2018), (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



## 2.2 Izaera bereziko kirol jarduerak sustatzeko dirulaguntza lerroa

**a.- Helburu estrategikoak.** Herritarren bizitza aktiboa eta jarduera fisikoaren sustapena. Kirol jarduera ahalbideratu eta sustatzea, eta baita hainbat ekintza eta programen antolakuntza.

<b>Onuraduank</b>	Hondarribian diharduten kirol talde, erakunde eta elkarteak.
<b>Eraginak</b>	Hondarribiko kirol talde eta elkarteek antolatzen dituzten ekintza puntualak laguntzea eta sustatzea, horien bitartez herritarrei kirol-jarduera aukera zabala eskaini ahal izateko.
<b>Gastua</b>	14.500€
<b>Finantzazioa:</b>	0205.481.02.341.00
<b>Erregimena</b>	Konkurrentzia lehiakorra. <i>Dirulaguntza konkurrentea izanik, bideratuko den deialdiak 38/2003 legearen 17. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Deialdia ekaina baino lehen egingo da. -Eskabideen aurkezpena deialdia egin eta 20 egun naturalen epean. -Ebazpena bi hilabete baino lehenago. -Lehen ordainketa ebazpenarekin batera: %60. -Justifikazioa noiz? -2. ordainketa justifikazioa onartu ondoren: %40.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai. Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

### b.- Jarraipena eta ebaluazioa

-Adierazleen bitartez.

- Numerikoak: erakunde eskatzaileek dituzten ohiko lizentzia kopurua (2018), (2019)
- Portzentaia: erakundeen tituludun teknikarien portzentaia (2018), (2019)
- Portzentaia: lizentzia dutenen artean emakumeen portzentaia (2018), (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.



**2.3. Eskola-kirola kudeatzeko egiturak sortu eta garatzeko ikastetxeei dirulaguntza lerroa**

**a.- Helburu estrategikoak.** Herritarren bizitza aktiboa eta jarduera fisikoaren sustapena Kirol jarduera ahalbideratu eta sustatzea haur eta gazteen artean.

<b>Onuradunak</b>	Herriko ikastetxeak eta ikasleak
<b>Eraginak</b>	Hondarribiarren kirol eskari guztiei erantzuna emango dion herriko kirol sistema garatzen laguntzea.
<b>Gastuak</b>	40.000€
<b>Finantzazioa</b>	0205.481.02.341.00
<b>Erregimena</b>	Konkurrentzia lehiakorra. <i>Dirulaguntza konkurrentea izanik, bideratuko den deialdiak 38/2003 legearen 17. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
<b>Egutegia</b>	-Deialdia ekaina baino lehen egingo da. -Eskabideen aurkezpena deialdia egin eta 20 egun naturalen epean. -Ebazpena bi hilabete baino lehenago. -Lehen ordainketa ebazpenarekin batera: %60. -Justifikazioa noiz? -2. ordainketa justifikazioa onartu ondoren: %40.
<b>Bateragarritasuna</b>	Beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetako dirulaguntzekin, bai. Helburu berarentzat Hondarribiko Udalaren bestelako laguntzekin, ez.

**b.- Jarraipena eta ebaluazioa**

-Adierazleen bitartez.

- Numerikoak: erakunde eskatzaileek dituzten ohiko lizentzia kopurua (2018), (2019)
- Portzentaia: erakundeen tituludun teknikarien portzentaia (2018), (2019)
- Portzentaia: lizentzia dutenen artean emakumeen portzentaia (2018), (2019)

-Ekitaldi bakoitzeko jarraipen txostenean onuradunak, emakidak, epeen betetze-maila eta abar jasoko dira.

### 3. Gizarte Zerbitzuak

#### 3.1. Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten erakundeei dirulaguntzak

**a.- Helburu estrategikoak.** Herritarren artean elkartasuna, parte hartzea eta gizarte-boluntariora sustatzea. Gizarteratze arazoak dituzten herritarrei lagundu. Gizarteratze arazoak dituzten herritarrak artatu. Gizarte sentsibilizazioa.

<b>Onuradunak</b>	Hondarribian eta bere eskualdean diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteak eta erakundeak, legalki eratuak, eta Gizarte Zerbitzuen arloan aritzen direnak. Lurraldeko erakundeak ere aurkeztu ahalko dira, beraien jardunean udal arloa gainditu eta/edo Hondarribiko herritarrak artatzen badituzte.
<b>Eraginak</b>	Gizarte arloko elkarte eta erakundeek egiten dituzten jardueren sustapen eta sostengua.
<b>Gastuak</b>	15.000€
<b>Finantzazioa</b>	0208.481.01.230.00
<b>Erregimena</b>	Konkurrentzia lehiakorra. <i>Dirulaguntza konkurrentea izanik, bideratuko den deialdiak 38/2003 legearen 17. artikuluan xedatutakoa jaso beharko du.</i>
